



Zaharrak ez zuen hil nahi  
Gaizka Zabarte

Liburua gustura irakurtzen da, batez ere hasierako eta tarteko ataletan; gero, badirudi apur bat nahasi egiten dela, istorioa edo hilkutxa huts horren atzean ezkututzen zen misterioa aurrera ateratzea kosta egiten zaiola-edo egileari. Oro har, eleberria edo narrazioa *ligh* samarra dela esango nuke, dela planteamenduagatik dela liburuaren eduki orokorragatik. Hala eta guztiz ere, euskara aldetik nahiko ondo funtzionatzen du, eta hizkuntzaren transmisiorako erabat balio izateaz gain, literatura-produktu bat eskaintzeari begira ere maila ona du, gero beste kontu bat da istorioak gehiago ala gutxiago funtzionatzea, egilea irudimen edo ahalmen handiagoa edo txikiagoa erakustea libururako aukeratu duen argudioa aurrera ateratzeko orduan. Baina hizkuntza, eduki, badauka.

Liburuaren bigarren atalean agertzen den digresio batek arreta erakarri dit. Eta arreta erakartzen du, lehen atalak oso inpresio ona uzten dizulako, liburuak itxura ona du... Baina, halako batean, egileak mahukatik-edo ateratzen du digresio bat, liburuarekin zerikusi handirik ez daukana, nire ustez... hau da, ez da narratzailearen digresio bat, egilearena berarena baizik, eta bueno, arreta erakarri dit, zeren azken finean, egileak nobelatik desagertu egin behar du beti, ez baldin bada nobela autobiografiko bat eta gainera lehen pertsona kontatua, eta hau kasu hori ez da, noski.

Dena den, digresio hori berehala uzten du atzean eta nobelaren hariari heltzen dio berriz arin bai arin, gogoz, indarrez, gidoiari helduz. Ez dakit, liburuko protagonistak badirudi kontatzen digunaren errelatoa –idatziz– egin nahi duela, baina narratzailearen ikuspuntu hori ez da era uniforme batean azaltzen nobelaren garapen osoan, hau da, liburuan nagusi den ikuspuntua protagonista nagusiarena da, eta honi,aldi berean, bigarren mailako beste protagonista batzuk inguratzen zaizkio; beraz, bilbea narratzailearen ahotsaren bitartez eta elkarrizketen bitartez garatua dago. Baina nobela ez da iristen protagonistaren beraren idazkiaren edo kontakizunaren bitartez garatzera, narratzailearen ahotsaren bitartez baizik, eta ahots hori bat dator –nik uste– protagonista nagusiarekin. Beste kontu bat da bi ahotsak nolabait nahastea...

Batzuetan, film baten aurrean jartzen gara eta “harrapatu” egiten gaitu. Baina denbora aurrera doa eta filmeko gidoiaren korapiloa erabat “askatu” egiten ez dela ohartzen gara, behin eta berriro ari da gidoiaren ardatzaren inguruan bueltaka eta bueltaka, baina korapiloa bete-betean eta osoki askatzera heldu gabe... Nire ustez, nobela honetan hori bera gertatzen da, edo behintzat, hori da nik hartu dudana inpresioa.

Eta gero, bukaera alderantz, nire ustez hor nonbait hasten da liburuaren gainbehera. Egileak –protagonistak, narratzaileak– ez dio gidoiari irtenbiderik aurkitzen. Dena bilakatzen da nahasgarri. Irakurle modura atzera jotzeko beharra sentitzen duzu, azaldu diren eta azkeneko ataletan azkar eta azal gaineratik berriro aipatzen diren pertsonaiak euren izenen arabera berriz kokatzeko, baina hala ere, gidoian ezkututzen zen “istorio handia” edo “misterio handia”, azkenean, argitara ateratzen ez delako sentsazioarekin gelditzen zara. Istorioa halako anbiguotasun batean diluitu egiten da. Eta orduan, egilea

bera ohartzen da horretaz, eta mutis bat egiten du, eta une horretan amore ematen du, eta amore ematen du berak ere istorioaz interesatzeari uzten diolako, “iragan osoa argitara ateratzerik ez dagoela” ondorioztatuko balu bezala, eta gainera, “errealitatea konplexuegia dela” onartuz bezala, hilkutxa huts baten inguruan sortu duen suspensearen mailari eutsiko dion irtenbide bat topatzea konplexuegia gertatzen zaiolako.

Beraz, egile/narratzaileak (azken atal hauetan bereziki bi-biak izatera igarotzen denak) liburuko neska pertxentarekin alde egiten du, eta kito: “Agur, Ben-Hur!”, esaten dio irakurleari...

Baina liburua gustura irakurtzen da. Testua –ePub formatuan, behintzat– ez dago justifikatuta bi alboetan, hau da, testu osoa ezkerrean lerrotaturik agertzen da. Beharbada, pdf formatuarekin aproba egin beharko nukeen. Dena den, azkenean ohitura-kontua da eta 20 orri irakurri eta gero, berdina zaizu testua justifikatuta egotea ala ez; dena den, aitortu behar dut nobeletan testua bi ertzetan ondo justifikatuta egotea gogoko dudala... Detaile txiki bat baino ez da. Baina, tira, ohiturazko animaliak *gera*...

(Oharra: pdf formatuarekin aproba egin berri dut eta primeran ikusten da. Nire irakurgailua Wolder E-Book markakoa da. Beraz, irakurgailu berbera baldin baduzue edo arazo berarekin topo egingo bazenute, aukera ezazue pdf formatua, irakurgailura ezin hobeto egokitzen da eta).